

Ze barri?

ESKORIATZA eta GATZAGAKO HILABETEKARIA

2001ko
OTSAILA

47 zkia.

Ur latik Landetara

Elkarrizketa:
Patxi Garate

Eskoriatzarrok munduan:
Bretainiatik Danimarkara

**ERREPORTAIA:
ESKORIATZA BERE AURPEGIA
BERRITU NAHIAN**

MIRENTXU

TABERNA

Kafe goxoa hartzeko

Tfnoa.: 943 71 41 67

TXALAPARTA

JATETXEA

Tfnoa.: 943 71 50 46



DORLETA

Aranburuzabala, 22 -bajo

Tfnoa.: 71 51 20

TOKI ALAI

Taberna

Tfnoa: 943 71 47 29

**KARAJILOETAN
ESPEZIALIZATUA**

GOLO
gazte moda

Tel.. 943 71 45 61

AZKOAGA

ESTANKOA

Zure Zerbitzura



bedardenda

Tfnoa.: 943 714327

ESKORIATZA

**ZURE
IRAGARKIA
HEMEN**




Charter

Eta gainera, zerbitzua etxera!

Aranburuzabala, 3

Tel. 943 71 45 46

Ordutegia: 9etatik 13 t'erdietara
eta 17etatik 20etara.



**RADIO ELECTRICIDAD LEGAZPIA
"R.E.L.E."**

ESKORIATZA

Denda:

Santa Ana, 17

Tfnoa-Faxa: 943 714165

Tallerra:

Santa Ana, 12

Tfnoa-Faxa: 943 714112

**Zure Publizitatea Ze Barri? aldizkarian
ikusi nahi baduzu, gurekin kontaktuan
jarri besterik ez duzu. Geuk emango
dizugu behar duzun informazio eta
zerbitzu guztia.**

Eskoriatza

***Ze Barri? aldizkaria,
Intxaurtxueta 9-10, Eskoriatza.***

Tel.: 943 71 54 34

E-maila: axtroki@topagunea.com

San Pedro 9, 1 behea
20540 ESKORIATZA
Tel. 943 71 54 34
E-maila: axtroki@topagunea.com

ARGITARATZAILEA:

AXTROKI
Kultur Elkartea

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Garikoitz Kortazar
Andoni Bengoa
Lorea Agiriano
Iñigo Biain

KOLABORATZAILEAK:

Aitor Uribebeberria
Aitor Urrutia
Asier Errasti
Juanma Pagalday
Iñaki Agiriano
J.J. Arrieta
Jon Errasti
Museo Eskola
Lourdes Martinez
Edurne Unzueta
Iranzu Gabilondo

INPRIMATEGIA:

Eguzkigraf, Koop. Elk.

TIRADA:

2.000 ale

LEGE GORDAILUA:

SS - 200/99

ISSN:

1139-9856

ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten
aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.




AXTROKI: HAMAR URTE, HAMAIIKA LAN

Bai, badira hamar urte, Udaleko zinegotzi batek bultzatuta gazte koadrila batek osatu genuen Euskara talde hari bultzada bat eman geniona, eta deialdi zabal bat egin eta gero, AXTROKI KULTUR ELKARTEA sortu zena.

Badira hamar urte ilusio handiz Eskoriatzan euskararen erabilera bultzatzeko talde zabal eta anitza elkartu ginena. Inguruko beste herriei jarraituz egitura zabaleko antolaketa eman genion elkarteari, ahalik eta esparru zabalenetan hazi zedin. Ordukoak dira Udaleko Euskararen Ordenantzak, euskara teknikaria bultzatzeko lehen eginak, Lehen Ze Barri?ak, San Juan Gaba eta Olentzero jaiei emandako bultzada, Argia eguna, Egunkaria Sortzen kanpaina eta Egunkariako Tonbola, Korrika, Ikastolen jaialdietara joateko autobusak...

Ilusioa eta parte hartzea izan zen lehen garai haietan nagusi. Gerora aldiz, erreleboa hartzeko garaia heldu zenean desagertzeko zorian izan ginen, lehen garai haietan lan asko egindako jendeak parte hartze aktiboa utzi eta erreleboa heltzen ez zelako. Eta noski, pertsonekin batera baita egitura zabal hura ere.

Bigarren garai honetan berriz beste dinamika mota bat erabili dugu, kimu txiki batetik abiatuta, adar sendoak sortzea izan dugu helburu. Kimua, hasiera hartako jai batzordea izan da, urtero ekintza minimo batzuk egiten jarraitzeko aitzakia eman diguna eta baita kanpotik etorri izan diren ekintzak antolatzen aritu den azpitaldea ere. Lehenengo adarra, Euskararen astea, gerora Udazken kultural barnean murgildu dana. Bigarrena Ze Barri? Urlatik-Landetara aldizkaria (aurten 5 urte beteko dituen), igaz Tortolis



Ludoteka etorri zen eta azkenik, Goiena kooperatibaren sorrera. Bide honetan Udaleko Euskara batzordean, Debagune (Deba Goieneko Euskara Elkarte Topagunea) eta Topagunean (Euskal Herriko Euskara Elkarte eta Komunikabideen Elkargoa) ere aktiboki parte hartzen ari gara.


Baina sustrai sendo barik ezin adar sendo askori eutsi, eta zuek zarete gure sustraiak, elkartearen bazkideak eta hamar urte hauetan antolatu izan ditugun ekintzetan laguntzaile eta parte hartzaile izan zaituztegun guztiok. Eta guztion artean hamar urte hauek ospatu ditzagun, aurtengo urtean zehar hainbat ekintza antolatuko ditugu herrian. Lehena martxoaren 30an izango da Ikastolaren etxe berrian dagoen aretoan, Xabier Amuriza eta Michel Ducauren eskutik Bizkaiko kopla zaharrak entzuteko aukera izango dugu.

Antolatuko ditugun ekintzekin goza dezazuela eta guztion artean sustraiak sendotzen eta adar berriak sortzen joan gaitzela, aurrerantzean ere gure hizkuntzak fruitu gozoak eman ditzan Eskoriatzan.

Andoni Bengoa

Euskal Txokoa lehen hurratsak ematen

Joan zen hileko zenbakian aurreratu genizuen bezala, dagoeneko bere bidea hasia du Eskoriatzako Euskal Txoko jaioberriak. Urtarrilaren 26an inauguratu zen Intxaurtxueta auzoko 9 eta 10 behebarruen artean dagoen euskararen txoko berria, era horretan herriko hainbat eskakizun eta beharrei irtenbidea emanez. Aurreko alean irakurri ahal izan zenuten bezala, estreinaldiari dagokion pisua emateko hiru hitzaldi izan ziren Euskal Txokoa antolatu diren lehen ekitaldiak. Lehenengo egunean Alberto Elortza sukaldari oñatiarra izan zen hizlari bezala. Berak aukeratutako gaia sukaldarien eta komunikabideen arteko harremana izan zen, nahiz eta azkenean ia sukaldaritzaz bakarrik hitzegin. Bigarren hizlaria Juan Martin Elxepuru idzle bergararra izan zen, kasu honetan herrietako euskalkiez, eta hauek idazteko arauak lantzen ari den Badiarduguz mintzatu zelarik. Hizlarietan azkena Mikel Irizar izan zen, Goiena Kooperatibako zuzendaria, eta Mikelek ahotan izan zuen gaia Goiena bera izan zen,



Inauguratu zenetik, bere eguneroko jarduera hartzen ari da Euskal Txokoa

komunikabide ezberdinen batura bezala, multimedia, alegia.

Baina Euskal Txokoa inauguratu zenetik izan ditu apopilo berririk ere. Izan ere, bai Axtroki Elkarteak, eta bai Zer Barri? aldizkaria iadanik bertan aurkitzen baikara, Euskaltegiko lagunei konpainia egiten. Beraz, hemendik aurrera badakizue non

aurki gaitzakezuen, Intxaurtxueta auzoko 9 eta 10 atarien arteko lokalean, Euskal Txoko jaioberrian. Gainera, egoitzaz aldatu badugu ere, ez pentsa telefono zenbakirik aldatu dugunik (943715434), ezta helbide elektronikorik ere (axtroki@topagunea.com).

Inauteriak: Urdelarderok kaixo, Kukumarroek agur

Aurten ere, Otsailak inauterien garaia ekarri zuen Eskoriatzaraino, bere kolore eta ohitura zaharrak beste urte batez berpiztu direlarik. Aurtengoa Ostegunean hasi zen, Urdelardero edo Urdailardero egunakin, hain zuzen ere. Goizean goizetik hasi ziren ikastetxeetako umeak kalejirarekin Ostegun Potoloa ospatzen, goizeko ekitaldi hau plazan izandako txistorradarekin amaitu zelarik.

Arratsaldean "Kiki, Koko, Moko eta Flash" pailasoak izan ziren herriko plazan gazteenen aurpegiak alaitzen, eta honen ondoren txokolatada mundiala izan zen.

Zapatuan Trikitixa Eskolako

ikasleak izan ziran kalejiran egunari hasiera eman ziotenak. Eta amaiera eman ziotenak, aldiz, Egan taldekoak izan ziren, arratsaldeko 7etan hasi eta goizalderarte Eskoriatzako giroa berotu zutenak.

Eta azkenik Martizena. Goizean goizetik gaztetxoak izan ziren protagonista herriko plazako musika eta dantzekin, baina arratsalde aldera, Kukumarroak irten ondoren, adin guztietako jendea hasi zen agertzen kalean. Eta guztiak kiroldegian elkartu ziren, herriko musika bandarekin batera, goizalderarte iraungo zuen festari hasiera emateko. Aipagarria Luis Ezeizako gurasoek egin zuten jatetxe mugikorra.



Denetarikoz mozorroak ikusi ahal izan ziren

Nekazaritza arloko garapen plana aurkeztu zen Leintz Gatzagan

Joan zen Otsailaren 13an aurkeztu zen Leintz Gatzagako Udalean urtebetez Oskar Azkaratek landu duen Nekazaritzaren Garapen Plana. Oskar Arrasatearra da, eta bekadun bezala izan da Gatzagako Udaletxean, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Saileko elkarte instrumental den Mendikoi enpresaren bitartez. Oskarren landutako Garapen Plan hau hainbat ardatz kontuan izanda jaio da, besteak beste turistikoa, soziala edo enpresariala.

Mendikoi enpresa Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza elikagaien gauzatzeaz arduratzen da, besteak beste, garapen planak diseinatzea delarik bere betebeharrak. Eta horixe izan da, hain zuzen ere, Oskar Azkaratek bete duen lana. Duela bost urte 1995-2000 urte bitarteko garapen plana onartu zuen Gatzagako Udalak, baina bertan finkatu ziren hainbat behar ezin izan dira epe honetan bete. Honen aurrean, Oskarrek egin behar izan duen lehen lana aurrez egindako plan honen balorazioa egin, eta aurrera atera ez diren ekimenen



Joseba Agirreurreta, Leintz Gatzagako alkatea, proiektuaren aurkezpenean arrazoia aurkitzea izan da.

Guzti hau oinarritzat hartuta, eta puntu honetatik abiatuta, datozen bost urteetan Leintz Gatzagan aurrera atera beharko diren estratejiak proposatzen ditu Oskarrek, baina argi utzi nahi izan zuen proposamen hauek horixe besterik ez direla, proposamenak, eta bere lanaren ondorioz gomendatzen duena ez dela derrigorrez berak esan bezala bete beharko. Oskarrek bere lana abiapuntu bezala ikusten du, eta

edozein proposamen berri ateraz gero, aztertu eta aurrera eramateko aukera azpimarratu nahi izan zuen.

Aurkezpenean Joseba Agirreurreta, Leintz Gatzagako alkatea, Birjinia Andres, Mendikoi enpresako ordezkaria eta Oskarren tutore lanak bete dituen, Oskar Azkarate bera, eta Gatzagako ehiztari taldea, jubilatuen elkarteko ordezkariak eta emakumeen taldeko partaideak ere izan ziren.

Aste Kulturala Luis Ezeizan

Guztiok dakigu ikastea zer den, eta ikastea baino gehiago, ikasgeletan lektzioa jasotzea zer den. Guztiok dakigu askotan aspergarri xamarra ere gertatzen dela ikastetxeetako monotonia hori, behar beharrezkoa denik zalantzan jarri gabe. Hau pentsatuaz edo, Luis Eziza ikastetxeko arduradunek aste kulturala antolatu zuten Otsailaren 5etik 9ra. Ikasle guztientzako izan zen gozamen aste honetan, lehen egunetako mahai jokoetatik, edo birziklai tailerretatik hasi, eta piano kontzertu, pilota partidu, pailaso, ipuinkontalari eta

pianojole eta guzti izan baitzen bost egunotan Eskoriatzako ikastetxean.

Baina ez zen gazteenentzako soilik antolatu aste kultural hau, hilaren 8an gurasoentzako hitzaldi benetan interesgarria izan baitzen bertan. Hitzlari bezala Andoni Colás pedagogo izan zen, eta hitzaldiaren gaia ☐Mugak eta arauak: beharrezkoak al dira gure haurren hezkuntzan? ☐. Benetan gai mamintsua aste kultural honetako protagonista izan ziren haurren gurasoek jaso zutena.



Hainbat inaugurazio Geilaoko elizatean

Joan zen Igandean, Martxoaren 4an, Geilaoko elizateak berritze aldera pausu haundi bat eman zuen, eguraldiak inondik inora lagundu ez bazuen ere. Izan ere, ospatu ziren lau inaugurazioak etengabeko lanbro eta zaparraden artean egin ziren.

Goiza Aretxabaletako Galartza auzoko uren depositoa hasi zen. Bertan, Aretxabaletako alkateak uraren pasoa zabaltu zuen, era horretan ur sare berrira ura bideratuz. Ur sarea erabat inauguratuta gelditu zen Eskoriatzako alkate Edorta Zubizarretak eta Geilaoko auzoalkate Joseba Urkiak aparkalekuko iturritxo zabaltzean. Ondoren aparkalekua bera bedeinkatu zen, argazkiak jasotzen duen unea. Guzti hau gertatzen zen bitartean, euria etengabe ari zuen, eta 12.30etako

meza nagusiak, eliza eraberritua inauguratzeaz gain, lehorretan jartzeko aukera paregabea eman zigun.

Mezaren ondoren luntxa etorri zen, auzokideentzako lokal berria inauguratuz, elizako eraikuntza berean kokatzen dena. Esan behar ekitaldi guzti hauetan auzotar eta instituzioetako ordezkari askotxo elkartu zela. Besteak beste, lehen aipatu ditudan Edorta Zubizarreta eta Joseba Urkia, Aretxabaletako alkatea eta Foru Aldundiko ordezkariak. Auzokideak gustora, eta maltzur bati baino gehiagori etorri zitzairen burura eskoriatzartasuna erosteko bidea ez ote den horrenbeste inaugurazio batera... Pentsamentu okerrak alde batera utziz, han bildu ziren guztiek erakutsi zuten euren poztasuna.



Aparkaleku berria bedeinkatzen ari ziren unea

Martxorako kultur ekitaldiak

* **Ostirala 9, 18.00, Kultur**
Etxean bideoforuma "Secretos del corazón" filmarekin. Amuskak antolatuta.

* **Larunbata 10,**
Emakumearen nazioarteko eguna ospatzeko afaria, Amuskak antolatuta.

* **Igandea 11, 17.00, Luis**
Ezeiza ikastetxean, gazteentzako zinea "Evasión en la granja" filmarekin.

* **Osteguna 15, 19.00, Kultur**
Etxean: "Emakumea eta indijena izatea", María Betsabe Grefa (Ekuador) eta Adelina Chon Canil (Guatemala) hizlariekin. Gaztelanieraz.

* **Larunbata 17, 18.00,**
Hernaniko Otsue-enea sagardotegira irteera herriko gazteentzako. Prezioa: 30000 pezeta.

* **Igandea 18, 10.00-13.30,**
Kiroldagiko igerilekuan, uretako parkea. 10.00-12.00 8 urtetik gorakoentzako, eta 12.00-13.30 7 urtetik beherakoentzako. Dohainik.

* **Asteazkena 21, 18.00 Kultur**
Etxean, umeentzako ipuin kontaketa izango da Hiruki taldearen eskutik.

* **Osteguna 22, 18.30, Jose**
Arana ikastolan (Ganuza jauregia) jateko ohiturei buruzko hitzaldia izango da, "Jan bai, baina ..." izenburupean. Hizlaria Virginia Iglesias izango da.

* **Ostirala 23, 22.30 Jose Arana**
ikastolan (Ganuza jauregia) "Molestias klonicas" antzezlanaren antzeztuko du Ohiulari Clown taldeak.

* **Larunbata 24, egun osoan**
zehar Udaberriko jaia ospatuko da, triki poteo, bazkari eta hainbat kontzerturekin.

* **Igandea 25, 17.00 Luis**
Ezeiza ikastetxean umeentzako zinea "Bostak arriskuan" filmarekin.

* **Osteguna 29, 18.30 Jose**
Arana ikastolan (Ganuza jauregia), eta gurasoei zuzenduta, ipuinen eta hauen kontaketa inguruan hitzegiten.

PATXI GARATE

41 urteko eskoriatzar honek, eskulanetarako betidanik esku ona izan badu ere, duela 12 urte inguru sartu zen burubelarri margoaren munduan, barruko zerbaitek horrela eskatzen ziolako, zerbait kanpora atera beharra sentitu zuelako. Azken Gabonetan Eskoriatzako Udalak antolatutako Artista Gazteen Lehiaketan irabazle atera zen, baina ez da hau izan duen errekonozimendu bakarra.

Patxi, zer da beharrezkoago margolari on bat izateko: sentsibiltatea ala teknika?

Nire ustez sentsibiltatea edukitzea askoz beharrezkoagoa da. Gero horri forma emateko erabiltzen da teknika, baina mamiari askoz garrantzitsuagoa deritzot. Barrutik zerbait ateratzeko beharra izan behar duzu. Badaude margolariak teknikoki beste munduko ezer ez direnak, baina anima haundia jartzen dietenak euren lanei.

Nola definituko zenuke zure lana?

Ezingo nuke konkretuki hemen edo han klasifikatu, baina bere berizgarri batzu esan diezazkizuket. Nik egiturari eta konposaketari garrantzia haundia ematen diet, beti oerka baten bila. Estilo serenoa eta garbia dela esango nuke. Beste bi bereizgarri lerroek duten garrantzia eta erabiltzen ditudan koloreak dira. Kolore gutxi erabiltzen dut, baina bakoitza bere esanahiarekin.

Gaien arloan ere ezin dut esan gehienbat honi edo hari buruz marrazten dudarik, pixka bat guztiaren inguruan marraztu baitut. Bai esango nuke, eta agian

subjetiboegia izango naiz, nire lanak baduela horrelako intimismo ikuttu bat. Esate baterako, Eskoriatzako lehiaketan garaile atera zen lana, □Lehioa□, Marokon izan nintzenean bertako lehioek sortu zidaten inpresioan dago oinarrituta.

Posible al da gaur egun atrtetik bizitzea? Ba al dago merkaturik?

Posible da, baina ez dugu ahaztu behar merkatua moden eta industriaren interesen menpe dagoela. Galeria batek zугanako apostua egiten badu, medio guztiak zure eskura jarriko dira. Esate baterako, Guggenheim museora edozein artistaren lana ekarrita, nahiz eta inork ez ezagutu artista hori, artista hori publikoari hurbiltzen diozu, eta medio guztietan agertuko da. Baina orohar publikoa da interesa galdu duena. Nor joaten da gaur egun galeria bat ikustera, zinera edo kontzertu batera joaten den bezala? Lehen interes gehiago zegoen, eta ondorioz, merkatua ere zabalagoa izango zen.

Lehiaketa askotara aurkeztzen al zara?

Egia esan, hainbatetan hartu dut parte, eta bat edo beste irabazo ere egin ditut. Baina askotara aurkeztu behar zara bat bera irabazteko, eta nahiko lan neketsua izaten da, gainera (Lanak enbalatu, bidali, ...). Baina denoi gustazten zaigu irabaztea, hori errekonozimendu bat baita, eta hare gehiago zeure herrian irabazten



baduzu; badakizu erderazko esaldi hori: □Nadie es profeta en su tierra□. Dena dela, eta artearen beste arlo gehienetan gertatzen den bezala, sari nagusienak askotan dagoeneko izen bat badutenei ematen zaizkie, ezaguna ezagunagoa eginaz, eta ezagutzen ez dena bere horretan utziz.

Nola iksten dituzu bailara eta Eskoriatza margo mailan?

Egia esan, Eskoriatzako margolariak Udalak antolatu dituen bi lehiaketetan ezagutu ditut, eta esan behar dut duela lau urtetik hona batek edo bestek oso garapen ona egin dutela. Baina orokorrean Eskoriatzan ez dago mugimendu haundirik arlo honetan. Heman inguruan Bergara izango da herri indartsuena, eskola izatean beti agertzen baitira fruituak errexago. Institutioek ere, bestalde, ez dut uste gehiegi lagundu dutenik orainarte, herrian edozein moztetako ekimenak aurrera ateratzeko ahalegin nahikorik ez baita egin.

ESKORIATZAREN ERDIGUNEA ALDATU NAHI DUEN PROIEKTUA

Joan zen Otsailaren 15ean Santa Marina plazako, eta orohar, Arbinostetik errekaren beste alderainoko esparrua erabat eraberrituko duen proiektuaren aurrerapena aurkeztu zen Eskoriatzako Kultur Etxean. Bertan izan ziren Edorta Zubizarreta, Ion Txabarri, proiektuaren egilea, eta Eskoriatzako hainbat bizilagun.

Hasiera batean Santa Marina plazaren inguruko proiektua zirudiena, azkenean Eskoriatzako erdigunea zeharo eraldatuko duen plan batean bilakatu da. Izan ere, Otsailaren 15ean Ion Txabarri aurkeztu zuena, "Aranburuzabala kaleko hamalagarren zenbakitik hasi, Arbinostetik jarraitu, eta labadero zaharreraino doan lerroa alde batetik, eta errekaren bi aldean zati haundi bat bestetik, erabat aldatuko dituen proiektu erraldoia" eta, Ion Txabarriren beraren hitzetan, "ambizioso da, baina erabat burutu daitekeena".

Eskoriatzako gune honetan lan hau aurrera eraman ahal izateko, Plan Berezi bat egin beharko litzateke, Otsailaren 15ean aurkeztu zena plan horren aurrerapena besterik ez zelarik. Aurkeztu

zen egunetik hilabete izango da errekursoak, sujerentziak eta abarrak egiteko, eta hilabete honetan zehar nahi duen orok izango du proiektu honen berri nahi adinako zehaztasun eta datuekin. Apiril alderako Plan Berezia onartua izatea espero da, gero Foru Aldundiak bere onespina eman beharko duelarik. Baina bien bitartean, gunearen Hirigintza Ordenamendu berria ere lantzen ari da.

Ion Txabarriren hitzetan, "berregituratu nahi dugun gune hau, kasko historikoan dagoen lurzoru marginala da, eta lurzoru hori berreskuratzea izango da proiektuaren helburua". Izan ere, eskoriatzar gehienok jakingo duzuen bezala, Arbinoste eta plaza inguruko etxeen artean gehienak baratzak dira, Santa Marinako plaza ere bertan

harrapatzen duelarik. Eta hortxe sortzen da, hain zuzen, arazo nagusienetakoa: Santa Marinan kokatzen diren bi lantegiek (Zubizarreta eta Olabari). Bi lantegi hauei beste kokaleku bat bilatuko zaie, ziuraski Aingeruguardako industri gunean.

135 etxebizitza, eta 270 aparkaleku

Proiektuak aurrikusten duen lurzoru guzti honetan, 18.900 metro karratu orotara, 135 etxebizitza eraiki nahi dira, eta 270 inguru aparkaleku berri sortu. Baina guzti honetarako, jakina, lehenengo dauden etxebizitzak bota behar dira, eta lurzorua eskuratu. Hor sortu daitezkeen ordainsariei aurre egiteko erabaki da proiektu honetan 135



Gaur egungo itxura erabat aldatuko da proiektu honek aurrera egiten badu.

etxebizitza eraikitzea, dirusarrera hoién bidez ordainduko baita, zati batean behintzat, ordaindu beharrekoa.


Gorago aipatutako bezala, Santa Marinako plazan dauden bi lantegiak desagertu egingo dira, eta baita erreka aldera dauden etxebizitzak ere, era honetan erreka berriro azaleratuz (Ez ahaztu lantegiak erreka gainean daudela, euren zimentazioak errekan bertan daudelarik). Etxebizitzak errekatik, gutxienez, 10 metrora eraikiko dira, bien tartean berdegune zabala sortuko delarik. Gaur egungo Santa Marina plazatik zubitxo bat izango da erreka bestaldera pasatu ahal izateko, eta gaur egun lantegiak dauden tokian etxebizitza bloke bat joango da, plazara ematen duten etxeen atzekaldean, Santa Anatik sartu ahal izango delarik bertara.

Gainontzeko etxebizitzak Arbinosten joango dira, mendiari bizkarra emanez eta errekar aurpegia. Gune honetan, Aranburuzabala kaleko 14 zenbakitik hasita, dauden etxebizitzak botako dira, euren lekuan proiektuak aurrikusten dituenak eraikitzeko.


Errepide berria Arbinostetik

Proiektu honek aurrikusten duen beste aldaketa esanguratsu bat, gaur egun Arbinoste zeharkatzen duen bidexka ganorazko norabide bakarreko errepide bat bilakatzea litzateke, Santa Anatik Aranburuzabala kalerako norabidearekin. Errepide berri hau hor izanda, Edorta Zubizarretak erdialdeko errepidea itxeko aukera azpimarratu nahi izan zuen, bai jaiegun berezietarako, edo baita asteburu arruntetarako ere. Modu honetan, Eskoriatza behetik gora zeharkatu nahi duenak Arbinostetik egingo luke, eta alderantzizko bidea, berriz, Dorleta auzunetik.

Baina lan guzti hauek beste hainbat hobekuntza ere ekarriko diote



Lehengo, eta gaur egungo Eskoriatzatik (Goiko argazkian) erdigune erabat ezberdina izango duen Eskoriatza batera (Beheko argazkian) eramango du proiektu honek herria. Besteak beste, 135 etxebizitza eta 270 aparkaleku inguru aurrikusten dira, berdegune zabala, eta errepide berria gaur eguneko Arbinostekoaren gainean.



Eskoriatzako erdiguneari, besteak beste saneamendua, uren bideratzea, gasarena, telefonia edo elektrindarra ere eguneratu egingo baitira. Aldaketa ugari, beraz, azkenaldi honetan Eskoriatzarako iragarri direnak, eta Otsailaren 15ean

aurkeztutako proiektu honekin, azken ikutua eman zaio nolabaiteko hirigintzaren iraultza honi. Bitartean, badakizue, proiektu hau ikusgai eta aztergai izango duzuela Eskoriatzako Udaletxean.


Bretainiatik Danimarkara, itsasgizon haundien bideari jarraiki (I.)

lazko Uztailaren 31an abiatu ginen lau lagun Britainia aldera, bertatik hasi eta kostaldea jarraiki Danimarkaraino heltzeko. Bide haxe bera, baina itsasoz, duela mende asko hasi ziren egiten Europako itsasgizon ausartenak. Kostalde bikaina, eta pirata, kortsari, bikingo eta arrantzale askoren bidea hiru herrialde zeharo ezberdin ezagutzeko: Britainia, Holanda eta Danimarka.

Bretainiako lehen geldiunea **Guerande** izeneko herrixka batean egin genuen, Oñatitiko bidai luzea atzean utziz. Bertan izan genuen britainiarrekin lehen kontaktua, eta bertan ohartu ginen beren izaera zabalaz. Guerande ertaroko herrixka bat da, harresiz inguratua, eta herri zaharren kontserbazioaren eredu bikaina.

Handik **Vannesera** jo genuen, Britainiako hiriburua, eta kasu honetan ere mediebal kutsu sakonekoa. Aipagarriak dira hibaian bertan aurkitzen den portua, eta baita automaten museoa ere, aintzinako panpin bizidunak ikusteko aukera bikaina. Eta Vannesetik **Quiberon** aldera jo genuen.

Quiberon beste herri txiki bat da, hegoaldeko penintsula estu-estu batean kokatua. Bertan dastatu genuen, gero konturatuko ginen bezala, Britainiako jaki nagusia dena:




Aitziber, Laura eta Gartxi Locronango eliza erromaniko baten aurrean

Crepeak. Herriak berak ez dauka erakargarri berezirik, baina bertaraino heltzeko bidea benetan bitxia da, hain baita estua lehen aipatutako penintsula, puntu askotan errepidearen zabalera baitauka (itsasoa alde batera, eta itsasoa bestera).

Quiberonetik **Carnac** aldera egin genuen, zelden historian gune garrantzitsuenetakoa dena, bertan aurkitzen diren menhir itzelen ilara amaigabeekin. Gomendagarria da

bertako museora bisitalditxo, oso ondo azaltzen baitira teknika multimedien bidez zelden eta beren menhirren gorabeherak eta misterioak. Eta **Carnactik Locmarinier** herrixkara, kostaldeko herrixka txiki eta tipikoa.

Itsasaldean nahiko ibili ondoren, **Joselin** herrira egin genuen, hau ere ertaroko herrixka bat, baina aurreko kasuetan baino oraindik hobeto zaindutakoa. Han, herria ia ukitu gabe, posible izango litzateke erdi



Brignonan Plages: piraten gordelekua eta haitzez jositako tranpa itsasgizonentzat

aroko filme bat egitea, hain ondo kontserbatua baitago.

Gure hurrengo geltokia **Locronan** izango zen, hau ere barrualdeko herrixka benetan polita, erdi aro kutsu sakonekoa eta benetan ondo kontserbatua. Orainarte ikusitakoarekin garbi dakusagu Britainia tradizio erromaniko haundiko herria dela, eta oso erlijiosoa gainera. Benetan bitxiak dira kanposantuak, guk hemen ikusten ditugun ohiko gurutzeek gain, gurutze zeltak ere asko ikusten baitira, beneta ederrak.

Locronanetik **St. Mathew** puntara joan ginen, mundu gerrako aztarna garbiak dituen. Bertan eliza zahar baten aztarnak ageri dira, itsasoak jandako lurraren muturrean bertan, eta baita bunker zaharrak ere, kostalde osoari begira hortxe gelditu zirenak, militarrek bertan behera utzi zituztenean. St. Mathew lurmutur honetan gure lehen ezkontza britainiarra ikusteko aukera ere izan genuen, bertako jazki, musika eta ohitura zaharrekin jantzia. Kostalde benetan bikaina ageri zaigu gure aurrean, akantilatuz josia, eta horrelakoxe mutur batean gaua pasatzeko erabakia hartu genuen, debekatua zegoela jakinda ere.

Bidaian aurrera, **Brignogan Plages** parajera heldu ginen,


Brignoganeko hondartzetara, hain zuzen. Gune hau garai bateko piraten gordelekua izan zen, eta berehala ohartu ginen zergaitik: itsasgizon trebeak bakarrik ausartu zitezkeen irla txikiz eta haitzez jositako ur hauetan. Gutako norbaitek Britainiako lehen bainua hartzeko ere aprobetxatu zituen ur bare baina arriskutsu hauek.

Ekialdera bidean **Dinan** herrira heldu ginen, bidai osoan ikusi genuen herri politenetakoa. Kasu honetan ere ertaroko herri baten aurrean gaude, baina benetan ikusgarria eta oso ondo zaindutakoa. Merezi du bere

harresiari jarraiki herri osoari bira ematea, ibilaldi luzetxo izanda ere, begietatik sartutakoak hanketako nekazioa ahaztu eragiten baitu.

Puntu honetan Britainia eta Normandiaren arteko mugan geunden ia, eta Britainian igarotako azken egunean ikusi genuen, nire ustez behintzat, bidai osoko bitxirik ederrena: **Mount St. Michel**. Mount Saint Michel mendixka bat da, itsasoaren ertzean kokatua, eta mareak igotzen duenean irla batean bilakatzen dena. Mendixka honetan, aspaldi, elizatzko bat eraiki zuten bertako apaizek Mikel deunari dedikatua, baina mendeak pasa hala, elizatzko hori monastegi erraldoi bilakatu zen, ia mendi osoa hartuz. Ezinbestekoa da toki honi bisita egitea, bai kanpotik eta bai barrutik benetan ikusgarria baita, batez ere monastegiaren barruko ibilaldia. Aipagarria iruditzen zait mendixkaren puntu altuenean aurkitzen den klaustroa, inguru osoa ederto ikusten baita bertatik.

Eta honelaxe amaitu genuen gure bidaiako lehen etapa, Britainiako alegia. Oso gustora iza ginen, eta markatuta gelditu zitzaizkigun, alde batetik aspaldikotasuna gaur egun mantentzeko erakutsi duten erraztasuna, eta bestetik kostaldea. Gastronomikoki crepeak dira Britainian jaun eta jabe.



Mount Saint Michel, bidaian aurkitu genuen bitxirik ederrenetakoa

Ihauterietan mozorrotzen zara? Herriko ihauteriak gogoko dituzu?



Leire Fernandez

Bai, aurtan drakularen mozorroa jantzi dut.

Ondo daude, eskolan ere egiten ditugu jokuak. Urdailardero eguna, kukumarroak... asko gustatzen zaizkit.



Maider Gonzalez

Ni ere drakulaz mozorrotu naiz. Gustuko dut mozorrotzea.

Ekintzak ondo daude: dantzaldia, urdailardero eguna... baina mozorro lehiaketa falta da.



Jon Bengoa

Normalean ez naiz mozorrotzen.

Larunbatean izaten direnez, nik beste leku batzuetara joateko joera dut: Gasteizera, Bilbora...


Gaztetxoentzat baina ondo daudela uste dut.



Mª Angeles Lezeta

Ni ez baina besteak mozorrotuta ikustea gustatzen zait.

Beste herri batzuekin alderatuta pobretxoak dira hemengoak. Mozorro lehiaketek adibidez, giro hobe jarriko lukete.



Pablo Oñate

Ez dut ohiturarik, gure denboratan debekatua egon zen, eta orain ere ez naiz jantzen.

Gustatzen zaionarentzat nahikoa ekintza egiten direla uste dut.



Ana Exposito

Lehen mozorrotzen nintzen.

Oso gustuko ditut eta nahiko ekintza antolatzen dira: kukumarroak, urdailardero eguna... gaztetxoek primeran pasatzen dute.

GAIA

Ze Barri?k Goienkarian integratu beharko luke?

Ze Barri? aldizkaria, inguruko gainontzekoak bezala, desagertu eta Goienkarian integratzera doa. Oso ondo iruditzen zait. Puntu.

Ideiarik ere ez daukat Jojo jaunak nondik joko duen kontrara argudiatzeko, baina batasuna, indarren batzea, sinergiak, elkar hobeto ezagutzea eta horrelakoak dakartzagun zerbaiten aurka jarduteko narrua, eta horretaz gain, berekoikeria, isolatuta bizitzeko gogoia, atxabaltarren aurkako gorroto atabikoa eta nik zer dakit beste zertzuk beharko liratekeen. Jojo, mesedez, igaro dittuk Bainuetxetik beherakoekin harrika eta modu txarrez ibiltzeko garaiak. Orain kideak gaittuk, Goienkarikideak, hain zuzen. Eta ni, behintzat, batera jardutekoaren alde nago, guztion artean bailarako euskalduneri produktu duin eta nortasuna erakutsiko duen bat helarazteko. Lortuko dugun ala ez, geroak baino ez du esango.

Globalizazioa, mundualizazioa, nork bere sustraiei eutsiaz burututako mestizaia, albistea gertatu orduko munduaren beste aldean jakitea... Ez dakit horrenbesterakorik izango ote den, baina albistea bailararen edozein alderditan gertatu eta astebetean, luzeen, bertako herri guztietan ezagutzea. Egundokoa, ez?

Ez dezala, bestalde, inork pentsa gure bailarako komunikabide-taldeak "etsai-Opa" bat luzatu eta Ze Barri? irensten duenik, ez horixe. Hau entente cordialea izan da, euskal kultura eta masmediak maila altuago eta oparoago batera altxatzeko borondate amankomunak bultzatua.

Eta, zer esanik ez, behingoz kobratu egingo dugula, ez orain bezala. Hiru mila duro artikuluko, entzun dudanagatik. Bazen garaia, bai horixe!

Kapritxosoa naiz. Kutixizalea. Mokofina. Den-denak bere puntua behar du. Denak bere sasoia dauka. Globalizazioaren izenean ematen den estandarizazioa ez dut maite.

Horrexegatik, entsaladarako tomatea erostera noanean ez naiz hiperrera joaten. Josénera joaten naiz, bai, estanko ondoko dendara. Arraina gura dudanean ostera, ez pentsa hiperrean zenbaki bat izatea atsegin dudarik. Nahiago dut egunonaren jarraian neure izena entzutea, eta Eugeni peskateriak neuri propio egindako piroporen bat jasotzea, eta zeresanik ez, generoa nola tratatzen duen ikustea. Okela erosterakoan berri, zer esango dut bada bizi dugun garai ilun honetan. Arantxangana joaten naiz, txuletarekin batera txahalak eta txahalaren arbolgenealogikoan azaltzen direnek ere zer bazka izan duten kontatzeko gauza da eta. Sagarrak erostera ez pentsa hiperrera joango naizenik. Sagar bila Aloña frutategira joaten naiz, edo "plusultrara" Nievesengana.

Kontutan izan behar duzue aipatutako dendetan gustukoa dudan generoa izateaz gain, neu ere ezaguna naizela. Bai eta neure kapritxoak ere. Eta kasu berean daude bezero guztiak. José, Arantxa, Eugeni, Nieves, Luzia, Benita eta beste dendarientzako gu pertsonak gara, ez zerrendako zenbakiak. Eta badakite bakoitzak zer nahi duen eta nola nahi duen. Eta seme-alabak nola dabilzan galdetzen digute. Eta lanean zer moduz dihardugun. Eta ea buelta eman diogun joan den asteko katarroari. Arreta pertsonalizatua da hori. Geu, geure bizitza eta inguruko zirkunstantziak dituzte kontuan: bakoitzari berea eta ez guztiei gauza bera, arreta globala eta ez arreta globalizatua.

Goiko guztia kontuan izanda, nola demontre onartuko dut bada herriko informazio bila kanpora jotzea?. "Ze barri?"k Eskoriatzan eta eskoriatzarren esku jarraitu behar du. Bai portzierto!

Kobratze kontuan berri... zer dira hiru mila duro orain jasotzen dugun estimu eta kariñoaren aldean, eh?

jone eta jojo

ZE BARRIren atal hau, garaiei egokituz, interaktiboa egin nahi izan dugu. Dakizuen moduan, atal honetan Jonek eta Jojok gai jakin bati buruzko eritzi kontrajarriak botatzen dituzte... Baina orain zuek, irakurle guztiek ere, zuen keja, iradikizun, protesta, animo, irain, piropo edo dena-delakoak Jone eta Jojori helarazi diezaizkiezue.

E-mail bat bidali ondorengo helbide elektronikora, bertan nahi duzuen hori garbi jarriaz:

jojone@euskalerrria.org

TXARTELAK

* Nazioarteko Gazte, Ikasle edo Aterpetxe Txartela eskuratzeko aukera izango duzu hemendik aurrera Arrasateko Gazte Bulegoan.

DIRULAGUNTZAK

* "Banco de España" ekonomia-aren historiaren inguruko ikerketak egiteko dirulaguntzak. Epea: martxoak 16.

* "Censolar" en eskutik eguzki energia instalatzaile-projektista titulua ateratzeko dirulaguntzak. Epea: apirilak 30.

* "La Caixa" k Frantzia, Alemania, Britainia Handia, Estatu Batuak, Kanada eta Japonen gradu ondoko edo doktoretza ondoko ikasketak osatzeko laguntzak, lizentziatuei zuzenduta. Epea: martxoak 30, maiatzak 15 eta ekainak 29.

LANA

* Donostiako Informatikako Zentrurako informatikaria behar da. Epea: martxoak 14.

* Lizarrako Udalak lorazain bat behar du. Epea: martxoak 19.

* Altsasu, Olazti eta Ziordiako Mankomunitaterako gizarte langilea behar da. Epea: martxoak 22.

* Asteazkeneko jasotzen dugu asteburuan egunkari ezberdinetan azaltzen diren lanpostu iragarkien bilduma bat. Interesik edukiz gero, pasa zaitez Arrasateko Gazte Bulegotik.

IKASTAROAK

* Zeramika ikastaroa Arrasateko Loixe Taldearen eskutik. Astearte eta ostegunetan, 7etatik 9etara, otsailaren 20an hasi eta San Juanak arte.

* Gazteria Sailaren eskutik hastapen eta sakontze mailako alboka ikastaroa. Larunbata goizetan Arrasate Musikalen. Matrikula 3.000 pta/2.000 pta ikasle eta langabeentzat.

* Hastapen eta sakontze mailako txalaparta ikastaroa, astelehen eta ostiraletan arratseko 8etatik aurrera. Musakolako Gazte Txokoa. Matrikula 3.000 pta/2.000 pta ikasle eta langabeentzat.

* Literatur tailerra Jon Alonsoren eskutik, ostegunetan 6etatik 8ak arte, martxoaren 15ean hasi eta apirilaren 5era Monterronen burutuko da.

* Euskal dantzak, Arrasateko Gazteria Sailak Lore Gazteakekin elkarlanean antolatua, 10 urtetik gorakoei zuzenduta. Martxoaren 2tik aurrera, ostiraletan 7etatik 8.30ak arte. Matrikula 1.000 pta.

LEHIAKETAK

* Irungo Udalak, umorezko tira lehiaketa. 16-30 urte bitarteko gazteek har dezakete parte, gaztelera nahiz euskaraz, zuri-beltzean edo koloretan. Epea: maiatzak 25.

* Ikusentzunezkoen arloan hainbat

lehiaketa: Cantabriako Viernoles herriko bideo eta gidoi lehiaketa. Lanak 20 minututik beherakoak eta 25 urtetik berako gazteek egindakoak beharko dute. Epea: apirilak 15.

Natura (ingurumena, itsasoa, mendia, abentura) gaitzat hartuta, zine lehiaketa. Epea: abuztuak 20.



ESKORIATZA

Udaletxea	943-714407
Udal Bulegoak	943-714532
Udaltzaingoa	943-714407
Euskaltegia	943-792168
Kultur-Etxea	943-714688
Gizarte-Laguntzailea ...	943-713136
Kiroletxea.....	943-715328
Liburutegia.....	943-713135
Luis Eceiza.....	943-714938
Jose Arana-Almen Ikastola	943-714486
Almen	943-714964
Museo-Eskola	943-715453
Ze Barri?	943-715434
Talde Antimilitarista ...	943-714537
Irakasle Eskola	943-714157
Osakidetza	943-714452
Telesko	943-714917
Taxia	943-714059

BESTELAKOAK

Eskualde-Ospital (Arrasate) ...	943-795300
Gurutze-Gorria (Bergara)	943-765576
Ertzaintza (Arrasate) ...	943-797199
Suhiltzaileak (Oñati) ...	943-792800
Renfe (Zumarraga)	943-721515
Renfe (Gasteiz)	945 232030
Pesa (Arrasate)	902 101210
Larrialdiak (Arrasate)...	943 771043
SOS Deiak	112



MARTXOA

Martxoak 30, Ostirala,
Ganuzako jauregian,
arratsaldeko 19.30etan,
Bizkaiko kopla zaharrak
Xabier Amuriza eta
Michel Ducauren eskutik.

... baina ez dira hemen bukatuko gure urteurreneko
ospakizunak. Jakinaren gainean izango zaituztegu.

ALDIBI AUTOAK, S.A.

ZIGARROLA KALEA, 1 - TEL. 943 71 20 02 - 20500 MONDRAGON-ARRASATE



IKUSPUNTU BERRI BAT.



NISSAN ALMERA *Tino* BERRIA. Mundu guztiak gauzak modu berean ikusten ez dituelako, Nissan Almera Tino berriak ikuspuntu guztiak hartzen ditu bere baitan. Umeak, adibidez, jolas-parke batean bezala, izango dira Tinoan: irakurtzeko eta marrazteko mahai tolesgarriak, era guztietako panpinak gordetzeko lurreko kutxa ateratzekoa, liburuentzako sareak, arkatzak eta baita 12v.-tako entxuflea ere bideo-jokoekin jolas egin dezaten. Nissan Almera Tino berria. Txikientzat inoiz egin den gauzarik handiena.



**5 URTEKO
GARANTIA**
www.nissan-almeratino.com

1.8-KO MOTOREA
COMFORT
2.592.000 pta.*

2.2 DI MOTOREA
COMFORT
2.792.000 pta.*

2.0 Cv MOTOREA
AMBIENCE
3.162.000 pta.*



GIDATU ETA GOZATU